

ITZULPENA¹

Araua: 1672/2006/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko urriaren 24koa, enplegurako eta elkartasun sozialerako Europako Erkidegoko programa bat ezartzen duena - Progress.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*Decisión 1672/2006/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 24 de octubre de 2006 por la que se establece un programa comunitario para el empleo y la solidaridad social — Progress*» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 315/1 de 15/11/2006*)

1672/2006/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2006ko urriaren 24koa,

enplegurako eta elkartasun sozialerako Europako Erkidegoko programa bat ezartzen duena - Progress

**EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNeko KONTSEILUAK,**

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuak, eta, bereziki, haren 13. artikulua 2. paragrafoa, haren 129. artikulua, eta haren 137. artikulua 2. paragrafoa a) idatz-zatia, aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertu dute ⁽²⁾,
Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki ⁽³⁾,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Lisboako Kontseilu Europarrak, 2000ko martxoaren 23 eta 24koak, Batasuneko estrategia globalaren barnean sartu zituen enplegu-sustapena eta gizarteratzea. Horrela, honako helburu estrategiko hau lortu nahi du datorren hamarkadan: ezagutzen oinarritutako munduko ekonomiarik lehiakorrena eta dinamikoena bihurtzea, hazkunde ekonomiko iraunkorra lortzeko gai izango dena, lanpostu gehiago eta hobeak sortu eta gizartearen kohesio handiagoa izango dituen. Asmo handiko beste helburu batzuk ere ezarri zituen, enplegu beteak lortzeko, lanaren kalitatea eta produktibitatea hobetzeko, eta kohesio soziala eta lan-merkatu integratzailea bultzatzeko behar diren baldintzak berriz ere sortzeko joera har dezan Batasunak. Gainera, Bruselako Kontseilu Europarrak, 2005eko martxoaren 22 eta 23koak, estrategia hori berrikusi zuen.

(2) Erkidegoko finantza-tresnak sendotzeko eta arrazionalizatzeko helburua azaldu zuen Batzordeak. Horri jarraiki, Erabaki honek programa bakarra eta arrazionalizatua ezarri behar du, honako erabaki hauek oinarri hartuta, hasitako jardueri jarraipena emateko eta horiek garatzeko: 2000/750/EE Erabakia, Kontseiluarena, 2000ko azaroaren 27koa, diskriminazioaren aurka borrokatzeko Europako Erkidegoko ekintza-programa bat ezartzen duena

(2001-2006) ⁽⁴⁾; 2001/51/EE Erabakia, Kontseiluarena, 2000ko abenduaren 20koa, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunaren alorreko Europako Erkidegoko strategiari buruzko Erkidegoko ekintza-programa bat ezartzen duena (2001-2005) ⁽⁵⁾; 50/2002/EE Erabakia, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2001eko abenduaren 7koa, Erkidegoko ekintza-programa bat onartzen duena estatu kideen arteko lankidetzak bultzatzeko eta gizarte-esklusioaren aurka borrokatzeko ⁽⁶⁾; 1145/2002/EE Erabakia, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2002ko ekainaren 10ekoa, enplegua suspertzeko Erkidegoko neurri buruzkoa ⁽⁷⁾; eta 848/2004/EE Erabakia, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa, Europa mailan emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunaren alorrean lan egiten duten erakundeak bultzatzeko Erkidegoko ekintza-programa bat ezartzen duena ⁽⁸⁾; eta Erkidego mailan lan-baldintzen alorrean hasitako jarduerak.

(3) Kontseilu Europarrak 1997ko azaroaren 20 eta 21ean, Luxenburgon, enpleguari buruz egindako ezohiko bilkurak Europako enplegu-estrategia zehaztu zuen, estatu kideen enplegu-estrategiak koordinatzeko, guztien artean enpleguaren alorrean adostutako norabideetan eta gomendioetan oinarrituz. Gaur egun, enpleguaren eta lan-merkatuaren alorrari dagokionez, Europako enplegu-estrategia da Lisboako Estrategiaren helburuak aplikatzeko Europar dagoen tresna garrantzitsua.

(4) Batasunean pobrezia-atariaren azpitik bizi den eta gizartetik kanpo dagoen jende-kopurua onartezintzat jo zuen Lisboako Kontseilu Europarrak, eta, beraz, beharrezkotzat jo zuen neurriak hartzea, helburu egokiak ezarri eta pobrezia desagerrarazten laguntzeko. Helburu horiek Nizako Kontseilu Europarrean adostu ziren, 2000ko abenduaren 7, 8 eta 9an egin zenean. Honako hau ere adostu zen: ekintza-plan nazionalak eta Batzordearen lankidetzak-ekimen bat bilduko dituen koordinazio-rako metodo ireki batean oinarrituta egon behar dutela gizarte-esklusioari aurre egiteko politikek.

¹ C 255 EO, 2005.10.14koa, 67. or.

² C 164 EO, 2005.7.5ekoa, 48. or.

³ Europako Parlamentuaren Irizpena, 2005eko irailaren 6koa (C 193 E EO, 2006.8.17koa, 99. or.), Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2006 uztailaren 18koa (C 238 E EO, 2006.10.3koa, 31. or.) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2006ko irailaren 27koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea).

⁴ L 303 EO, 2000.12.2koa, 23. or.

⁵ L 17 EO, 2001.1.19koa, 22. or. 1554/2005/EE Erabakia (L 255 EO, 2005.9.30koa, 9. or.) aldatu zuen erabakia

⁶ L 10 EO, 2002.1.12koa, 1. or. 786/2004/EE Erabakia (L 138 EO, 2004.4.30koa, 7. or.) azken buruan aldatu zuen Erabakia.

⁷ L 170 EO, 2002.6.29koa, 1. or. 786/2004/EE Erabakia aldatu zuen Erabakia.

⁸ L 157 EO, 2004.4.30koa, 18. or. 1554/2005/EE Erabakia aldatu zuen Erabakia

(5) Epe luzera, aldaketa demografikoa dela-eta, babes sozialerako sistemen gaitasunak erronka gogorari egin beharko dio aurre, bai pentsio egokiak bermatzeko, bai eta osasun-laguntza eta iraupen luzeko prestazioak, guztien eskura egongo direnak, kalitate onekoak eta epe luzera finantzatu daitezkeenak, bermatzeko ere. Beraz, garrantzitsua da babes sozial egoki bat bermatzeko gai diren politikak eta babes sozialerako sistemen iraunkortasuna bultzatzea. Lisboako Kontseilu Europarrak erabaki zuen babes sozialaren alorreko lankidetzak koordinaziorako metodo irekian oinarrituta egon behar duela.

(6) Testuinguru honetan, arreta jarri behar da etorkinen egoera berezian, eta kontuan hartu behar da aitortu gabeko lana lan legal bihurtzeko neurriak hartzeak zenbaterainoko garrantzia duen.

(7) Europar Batasuneko lan-baldintzen gutxienezko arauak eta etengabeko hobekuntzak bermatzea da Europako politika sozialaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat, bai eta Europar Batasuneko helburu orokor garrantzitsu bat ere. Erkidegoak funtzio garrantzitsua bete behar du estatu kideen jarduerak bultzatu eta osatzeko orduan honako alor hauetan: osasuna eta langileen segurtasuna, lan-baldintzak, lana eta familia bateragarri egiteko beharra barne, langileen babesa lan-kontratuak bukatzen direnean, langileen informazio, kontsulta eta parte-hartzea, eta langileen eta enpresariaren interesak taldean ordezkatzea eta defendatzea.

(8) Diskriminaziorik eza Europar Batasuneko oinarritzko printzipioa da. Tratatu 13. artikuluko sexua, arraza edo jatorri etnikoa, erlijioa edo sinesmenak, ezgaitasuna, adina edo joera sexuala arrazoi dituen diskriminazioaren kontra borrokatu behar dela xedatzen du. Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuneko 21. artikuluko ere jasotzen du diskriminaziorik eza. Kontuan hartu behar dira diskriminazio-modu guztien ezaugarri espezifikokoak, eta horiei dagozkien neurriak hartu behar dira arrazoi bategatik edo zenbait arrazoigatik sortutako diskriminazioa saihesteko eta horren aurka borrokatzeko. Ondorioz, programaren eskuragarritasuna eta emaitzak aztertzerakoan, kontuan hartu behar dira ezgaitasuna duten pertsonen behar bereziak. Izan ere, bermatu egingo da pertsona horiek programa honek finantzaturako jardueretan osoki eta berdintasunez parte hartuko dutela, bai eta jarduera horien emaitzetan eta ebaluazioetan ere, eta, era berean, beren ezgaitasuna dela-eta pertsona horiek dituzten kostu gehigarriengatik konpentsazioa jasoko dutela bermatuko da. Urte askoan diskriminazio-modu jakin batzuen aurkako borrokan bildutako esperientzia, sexuagatiko diskriminazioaren aurkako borrokan, adibidez, baliagarri izan daiteke beste diskriminazio-modu batzuen aurka borrokatzeko.

(9) Tratatuaren 13. artikuluan oinarrituta, Kontseiluak honako Zuzentarau hauek onartu ditu: 2000/43/EE Zuzentaraua, 2000ko ekainaren 29koa, pertsonen arraza edo jatorri etnikoa edozein dela ere, horien

tratu-berdintasunerako printzipioaren aplikazioari buruzkoa ⁽¹⁾, arraza edo jatorri etnikoa arrazoi duen diskriminazioa debekatzeko duena, bereziki enpleguaren, lanbide-prestakuntzaren, hezkuntzaren, ondasun eta zerbitzuen eskuragarritasunaren, eta babes sozialaren alorrean; 2000/78/EE zuzentaraua, 2000ko azaroaren 27koa, enpleguan eta lanean tratu-berdintasunerako esparru orokor bat ezartzeari buruzkoa ⁽²⁾, enpleguan eta lanean erlijioa edo usteak, ezgaitasuna, adina edo joera sexuala arrazoi dituen diskriminazioa debekatzeko duena; eta 2004/113/EE Zuzentaraua, 2004ko abenduaren 13koa, ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko orduan gizonen eta emakumezkoen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeko duena ⁽³⁾.

(10) Tratatu 2. eta 3. artikuluei jarraiki, gizonen eta emakumezkoen arteko tratu-berdintasuna Erkidegoko zuzenbidearen oinarritzko printzipio bat da.

Horri jarraiki onartutako zuzentzauek eta beste egintza batzuek garrantzi handia dute Batasunean emakumezkoen egoera hobetzeko orduan.

Erkidego mailan onartutako neurriekin eskuratutako esperientziak bistan uzten du, Erkidegoko politikan genero-berdintasuna bultzatzeko eta diskriminazio-praktikei aurre egiteko, hainbat tresna behar direla, hala nola, legeak, finantza-mekanismoak eta sinergia-efektuak izango dituzten integrazio-ekintzak. Gizonen eta emakumezkoen arteko berdintasun-printzipioari jarraiki, programako sail eta ekintza guztietan genero-ikuspegia sartzea bultzatu behar da.

(11) Maila desberdinetan jarduten duten gobernu kanpoko erakunde (GKE) askok ekarpen handiak egin ditzakete Europa mailan, programako helburu orokorrekin lotutako norabide politikoak aldatzen lagunduko duten sareen bitartez.

(12) Kontuan izanda Erabaki honen helburuak estatu kideek behar den moduan lortu ezin dituztela, informazioa Europan zabaltzea eskatzen dutelako eta jardunbide egokiak Erkidegoan elkartrukatzea eskatzen dutelako, eta, beraz, ekintzen eta Erkidegoko neurrien alderdi anitzeko izaera dela eta, Erkidego osorako hobeto lor daitezkeenez, neurriak har ditzake Erkidegoak berak, Tratatuaren 5. artikuluan bilduriko subsidiarotasunaren printzipioari jarraiki. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasunaren printzipioari jarraiki, Erabaki hau ez doa beharrezkoaz haraindi helburu horiek lortzeko.

(13) Erabaki honek finantza-zuzkidura bat ezartzen du programaren iraupen osorako. Hori izango da erreferentzia pribilegiatua Aurrekontu Agintaritzarentzat urteko aurrekontu-prozeduran, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta aurrekontu-diziplina eta finantza-kudeaketa onari buruzko Batzordearen arteko, 2006ko maiatzaren 17ko, erakunde-arteko Akordioaren 37. puntuari jarraiki ⁽⁴⁾.

¹ L 180 EO, 2000.7.19koa, 22. or.

² L 303 EO, 2000.12.2koa, 16. or.

³ L 373 EO, 2004.12.21koa, 37. or.

⁴ C 139 EO, 2006.6.14koa, 1. or.

(14) Erabaki hau aplikatzeko beharrezko neurriak Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiaren -1999ko ekainaren 28koa da, eta Batzordeari esleitu zaizkion gauzatzeko eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen ditu ⁽¹⁾- arabera onartu behar dira.

(15) Programa bost sailetan banatzen denez, estatu kideek beren ordezkari nazionalak txandakatu ditzakete Batzordeari laguntzen dion komiteak lantzen dituen gaien baitan.

ERABAKI DUTE:

1. artikulua

Programa sortzea eta iraupena

1. Erabaki honek enplegurako eta elkartasun sozialerako Europako Erkidegoko programa ezartzen du, Progress izena duena (aurrerantzean "programa"). Europar Batasunak enpleguaren eta elkartasun sozialaren alorrean zehaztutako helburuak lortzeko finantza-laguntza ematera bideratuta dago programa, Agenda Sozialari buruzko Batzordearen Komunikazioari jarraiki. Horrela, Lisboako Estrategiak alor horietarako zehaztutako helburuak lortzen lagundu nahi da.

2. 2007ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte iraungo du programak.

2. artikulua

Helburu orokorrak

1. Honako hauek izango dira programaren helburu orokorrak:

a) estatu kideetako (eta parte hartzen duten beste lurralde batzuetako) egoera hobeto ezagutzea eta ulertzea, politiken analisiaren, ebaluazioaren eta jarraipen estuaren bitartez;

b) programak lantzen dituen alorretan, estatistika metodoak eta adierazle komunak sortzen laguntzea, behar denean, sexuaren eta adin-taldearen arabera bereizita;

c) Europako Erkidegoko legeriaren, dagokionean, eta Erkidegoko helburu politikoaren aplikazioa babestea eta kontrolatzea estatu kideetan, eta horien eraginkortasuna eta eragina ebaluatzea;

d) sareak sortzea, elkarrengandik ikastea, jardunbide egokiak zehaztea eta zabaltzea, eta ikuspegi berritzaileak bultzatzea Europa mailan;

e) Erkidegoak ezarri nahi dituen politikekiko eta lortu nahi dituen helburuekiko, bost ataletan zehazten

direnekiko, sentsibilizazioa handiagotzea alderdi interesdunengan, eta jendearengan, oro har.

f) Europako sare nagusien ahalmena handiagotzea, dagokionean, Erkidegoaren politika eta helburuak bultzatzeko, babesteko eta garatzeko.

2. Programako sail eta ekintza guztietan genero-ikuspegia sartzea bultzatuko da.

3. Programako sailetan eta ekintzetan lortutako emaitzak parte-hartzaile guztien eta iritzi publikoaren artean modu egokian zabalduko direla bermatuko da. Komeni denean, Batzordeak ikuspuntu desberdinei buruz hitz egingo du alderdi interesdun nagusiekin.

3. artikulua

Programaren egitura

Honako bost atal hauetan banatuko da programa:

1) enplegua;

2) gizarte-babesa eta gizarteratzea;

3) lan-baldintzak;

4) diskriminaziorik eza eta aniztasuna;

5) generoen arteko berdintasuna.

4. artikulua

1. atala: Enplegua

Europako enplegu-estrategia (EEE) aplikatzen lagunduko du 1. atalak honakoen bitartez:

a) EEEren eremuan, enpleguaren egoera eta aukerak hobeto ulertzea, batez ere, analisiak eta ikerketak eginez eta estatistikak eta adierazleak landuz;

b) Europar Batasunak enpleguaren alorrean zehaztutako norabideen eta gomendioen aplikazioa kontrolatzea eta ebaluatzea, bai eta horien eragina ere, bereziki enpleguari buruzko Txosten bateratuaren bitartez, bai eta Europako enplegu-estrategiaren eta politika ekonomiko eta sozial orokorraren eta beste eremu politiko batzuen arteko elkarreragina aztertuz ere;

c) politikei, jardunbide egokiei eta ikuspegi berritzaileei buruzko informazio-trukaketak antolatzea, eta elkarrengandik ikastea bultzatzea Europako enplegu-estrategiaren testuinguruan;

d) enpleguaren alorreko erronka eta politikei buruzko, eta erreforma-plan nazionalen gauzatzeari buruzko sentsibilizazioa, informazio-zabaltzea eta eztabaidak bultzatzea, bereziki solaskide sozialen, eskualdeetako eta tokiko agenteen eta beste alderdi interesdun batzuen artean.

¹ L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak (L 200 EO, 2006.7.22.koa, 11. or.) aldatutako Erabakia.

5. artikulua

2. atala: Gizarte-babesa eta gizarteratzea

Koordinaziorako metodo irekia (KMI) aplikatzen lagunduko du 2. atalak gizarte-babesaren eta gizarteratzearen alorrean, honakoen bitartez:

a) gizarte-esklusioari eta pobrezari dagozkien gaiak hobeto ulertzea, bai eta gizarte-babesari eta gizarteratzeari dagozkien ere, bereziki estatistiken eta adierazle komun en analisisaren, ikerketaren eta garapenaren bitartez, KMIren eremuan, gizarte-babesaren eta gizarteratzearen alorrean;

b) KMIren aplikazioaren kontrola eta ebaluazioa gizarte-babesaren eta gizarteratzearen alorrean, eta horrek nazio eta Erkidego mailan dituen eraginak, bai eta KMIren eta beste alor politiko batzuen arteko elkarreraginaren analisisa ere;

c) politikei, jardunbide egokiei eta ikuspegi berritzaileei buruzko informazio-trukaketak antolatzea, eta elkarrengandik ikastea bultzatzea gizarte-babesaren eta gizarteratzearen estrategiaren testuinguruan;

d) gizarte-babesaren eta gizarteratzearen alorrean, Erkidegoko koordinazio-prozesuaren testuinguruan, erronka eta alderdi politiko nagusiei buruzko sentsibilizazioa, informazio-zabaltzea eta eztabaidak bultzatzea, bereziki solaskide sozialen, eskualdeetako eta tokiko agenteen, GKEen eta beste alderdi interesdun batzuen artean;

e) gizarte-babesaren eta gizarteratzearen alorrean, Europa mailako sare nagusien gaitasuna handiagotzea Erkidegoko estrategiak eta helburu politikoak babesteko eta gauzatzeko.

6. artikulua

3. atala: Lan-baldintzak

Lan-ingurunearen eta lan-baldintzen hobekuntza bultzatuko du 3. atalak, osasuna eta lan-segurtasuna eta lana eta familia bateragarri egitea barne, honakoen bitartez:

a) Lan-baldintzen egoera hobeto ulertzea, bereziki analisi eta ikerketen bitartez, eta, dagokionean, estatistikak eta adierazleak landuz, bai eta indarrean dauden legeen, politiken eta jardunbideen eraginkortasuna eta eragina ebaluatuz ere;

b) Erkidegoko lanbide-legeria aplikatzen laguntzea, kontrol eraginkorraren bitartez, alor horretako langileentzako mintegiak antolatuz, eta erakunde espezializatuen artean, solaskide sozialak barne, gidaliburuak ginez eta sareak sortuz;

c) lan-osasunaren eta lan-segurtasunaren alorrean, prebentziorako ekintzak abiaraztea eta prebentzio-kultura bultzatzea;

d) lan-baldintzen alorrean, erronka eta alderdi politiko nagusiei buruzko sentsibilizazioa, informazio-zabaltzea eta eztabaidak bultzatzea, bereziki solaskide sozialen eta beste alderdi interesdun batzuen artean.

7. artikulua

4. atala: Diskriminaziorik eza eta aniztasuna

Diskriminaziorik ezaren printzipioa aplikatzen lagunduko du 4. atalak, eta printzipio hori Erkidegoko politika guztiek barne har dezaten bultzatuko du, honakoen bitartez:

a) diskriminazioaren alorrean, egoera hobeto ulertzea, bereziki analisi eta ikerketen bitartez, eta, dagokionean, estatistikak eta adierazleak landuz, bai eta indarrean dauden legeen, politiken eta jardunbideen eraginkortasuna eta eragina ebaluatuz ere;

b) diskriminaziorik ezaren alorrean, Erkidegoko legeria aplikatzen laguntzea, kontrol eraginkorraren bitartez, alor horretako langileentzako mintegiak antolatuz, eta erakunde espezializatuen artean sareak sortuz diskriminazioaren aurkako borrokaren alorrean;

c) diskriminazioaren alorrean, erronka eta alderdi politiko nagusiei buruzko sentsibilizazioa, informazio-zabaltzea eta eztabaidak bultzatzea, bai eta diskriminaziorik eza Erkidegoko politika guztietan sartzea, bereziki solaskide sozialen, GKEen eta beste alderdi interesdun batzuen artean;

d) diskriminazioaren aurkako borrokaren alorrean, Europa mailako sare nagusien gaitasuna handiagotzea Erkidegoko helburu politikoak eta estrategiak bultzatzeko eta gauzatzeko.

8. artikulua

5. atala: Generoen arteko berdintasuna

Generoen arteko berdintasunaren printzipioa aplikatzen lagunduko du 5. atalak, eta Erkidegoko politika guztiek genero-ikuspegia barne har dezaten bultzatuko du, honakoen bitartez:

a) generoen arteko berdintasunarekin eta genero-ikuspegia barne-hartzearekin lotutako alderdien egoera hobeto ulertzea, bereziki analisisen, ikerketen eta estatistiken bitartez, eta, dagokionean, adierazleak landuz, bai eta indarrean dauden legeen, politiken eta jardunbideen eraginkortasuna eta eragina ebaluatuz ere;

b) generoen arteko berdintasunaren alorrean, Erkidegoko legeria aplikatzen laguntzea, kontrol eraginkorraren bitartez, alor horretako langileentzako mintegiak antolatuz, eta generoen arteko berdintasunaren alorrean espezializatutako erakundeen artean sareak sortuz;

c) generoen arteko berdintasunarekin eta genero ikuspegia barne-hartzearekin lotutako erronka eta alderdi politiko nagusiei buruzko sentsibilizazioa, informazio-zabaltzea eta eztabaidak bultzatzea solaskide sozialen, GKEen eta beste alderdi interesdun batzuen artean;

d) Europa mailako sare nagusien gaitasuna handiagotzea Erkidegoak generoen arteko berdintasuna bultzatzeko dituen estrategiak eta helburu politikoak babesteko eta gauzatzeko.

9. artikulua

Ekintza-motak

1. Programak honako ekintza-mota hauek finantzatu ditu, komeni bada, nazioarteko eremu batean gauzatu ahal izango direnak:

a) analisi-jarduerak:

- i) datuak biltzea, lantzea eta zabaltzea eta estatistikak gauzatea,
- ii) metodologiak garatzea eta zabaltzea, eta, behar denean, baita erreferentziatzko adierazle edo parametro komunak ere,
- iii) ikerketak, analisiak eta inkestak egitea, eta horien emaitzak zabaltzea,
- iv) eraginak balioestea eta ebaluatzea, eta emaitzak zabaltzea,
- v) gidak, txostenak eta informazio- eta prestakuntza-materiala egitea eta argitaratzea, Interneten bidez edo beste bitarteko batzuen bidez;

b) elkarrengandik ikastearrekin, sentsibilizazioarekin eta zabaltzearekin lotutako jarduerak:

- i) jardunbide egokiak eta ikuspegi eta esperientzia berritzaileak identifikatzea eta trukatzeko, eta homologoen azterketa jarduerak eta elkarrengandik ikasteko jarduerak antolatzea, Europa mailako, nazioarteko edo nazio mailako bileren/taillerren/mintegien bitartez, nazioko egoera bereziak kontuan hartuz ahal den neurrian,
- ii) Lehendakaritzaren hitzaldiak/mintegiak antolatzea,
- iii) hitzaldiak/mintegiak antolatzea Erkidegoaren legeria eta politiken helburuak lantzen eta aplikatzen laguntzeko,
- iv) komunikabideetan ekitaldiak eta kanpainak antolatzea,

v) programari eta horren emaitzei buruzko dibulgaziozko materiala biltzea eta argitaratzea;

c) agente nagusiei laguntza ematea:

- i) Europa mailan, programa honen helburuak lortzearekin lotutako sare nagusien funtzionamendu-gastuetan laguntzea,
- ii) nazio mailako funtzionarioen lantaldeak antolatzea Erkidegoko legeriaren aplikazioa kontrolatzeko,
- iii) alor horretako langileentzako, funtzionario arduradunentzako eta beste aktore batzuentzako mintegi espezializatuak finantzatzea,
- iv) erakunde espezializatuaren artean sareak sortzea Europa mailan,
- v) adituen sareak finantzatzea,
- vi) Europa mailako behatokiak finantzatzea,
- vii) administrazio nazionalen artean langile-trukaketa,
- viii) nazioarteko erakundeekin lankidetzak.

2. Europa mailako dimentsioak garrantzia izan behar du 1. paragrafoko b) idatz-zatian zatian aurreikusitako ekintza-motetan; eskala egokian gauzatu behar dira horiek Europarentzat benetako balio erantsia dutela bermatzeko, eta nazioko, eskualdeko edo tokiko agintariak, Erkidegoko legerian aurreikusitako erakunde espezializatuak edo, dagokion eremuan, aktore nagusitzat hartzen diren agenteek gauzatu behar dituzte.

3. Programak ez du inolako ekintzarik finantzatu urte europarraren prestakuntzari eta gauzatzeari begira.

10. artikulua

Programan parte hartzea

1. Programa hau zabalik egongo da organismo publiko edo pribatu, agente eta erakunde guztientzat, eta bereziki honako hauek:

- a) estatu kideentzat;
- b) enplegu-zerbitzu publikoentzat eta horien agentzientzat;
- c) tokiko eta eskualdeko agintarientzat;
- d) Erkidegoko legerian aurreikusitako erakunde espezializatuentzat;

- e) solaskide sozialentzat;
- f) GKEentzat, eta, bereziki, Europa mailan antolatuta daudenentzat;
- g) goi-mailako irakaskuntzako zentroentzat eta ikerketa-institutuentzat;
- h) ebaluazioan adituak direnentzat;
- i) estatistikako institutu nazionalentzat;
- j) komunikabideentzat.

2. Batzordeak ere edukiko du zuzenean programan parte hartzeko aukera, 9. artikuluko 1. paragrafoa) eta b) idatz-zatietan aurreikusitako ekintzei dagokienez.

11. artikulua

Finantziarioa eskatzeko metodoa

1. Honakoen bitartez finantzatu ahal izango dira 9. artikuluan aurreikusitako ekintzak:

a) lizitazio baten ondorio diren zerbitzu-kontratuen bitartez; horrelakoetan, estatistika institutu nazionalekin lankidetzan aritzeko Eurostaten prozedurak aplikatu beharko dira;

b) laguntza partziala proposamen-deialdi baten ondoren; horrelakoetan, Erkidegoak lagundutako finantziarioak, orokorrean, ezingo du izan onuradunaren gutzirako gastuaren %80 baino gehiago. Ohiz kanpoko egoeretan eta analisi zehatz baten ondoren soilik emango dira aipatutako muga horren gainetik dauden finantza-laguntzak.

2. Finantza-laguntza lortu ahal izango dute 9. artikuluko 1. paragrafoan aurreikusitako ekintza-motek, horretarako eskaera eginez gero, adibidez, estatu kideengandik, honako arau hauetako xedapenei jarraiki: 1605/2002 Erregelamendua (EE, Euratom), Kontseiluarena, 2002ko ekainaren 25koa, Europako Erkidegoetako aurrekontu orokorrari aplikagarria zaion finantzazko Erregelamendua onartzen duena ⁽¹⁾, eta bereziki horren 110. artikulua, eta 2342/2002 Erregelamendua (EE, Euratom), Batzordearena, 2002ko abenduaren 23koa, Kontseiluaren 1605/2002 Erregelamenduko (EE, Euratom) garapen-arauei buruzkoa, Europako Erkidegoetako aurrekontu orokorrari aplikagarria zaion finantzazko Erregelamendua onartzen duena ⁽²⁾, eta bereziki horren 168. artikulua.

12. artikulua

Aplikazio-xedapenak

¹ L 248 EO, 2002.9.16koa, 1. or.

² L 357 EO, 2002.12.31koa, 1. or. 1248/2006 (EE, Euratom) Erregelamendua (L 227 EO, 2006.8.19koa, 3. or.) azken buruan aldatu zuen Erregelamendua.

1. Erabaki hau gauzatzeko behar diren neurriak, jarraian azalduko diren gaietako 13. artikuluko 2. paragrafoan zehaztutako prozedurari jarraiki gauzatzeko dira:

- a) programa gauzatzeko norabide orokorrak;
- b) programa gauzatzeko urteko lan-plangintza, atal desberdinetan banatzen dena;
- c) Erkidegoak eman beharko duen finantza-laguntza;
- d) urteko aurrekontua, 17. artikuluan eragin gabe;
- e) Erkidegoak laguntzen dituen ekintzetako aukeraketa-prozedurak, eta laguntza hori jasotzeko Batzordeak aurkeztutako ekintzen zerrendaren proiektua;

f) programaren ebaluaziorako irizpideak, horren errentagarritasunari lotutakoak barne, eta emaitzen zabaltze eta transferentziari buruzko xedapenak.

2. Bestetik, 1. paragrafoan zehaztutako gaiez bestelakoei dagokienez, erabaki hau gauzatzeko behar diren neurriak, 13. artikuluko 3. paragrafoan zehaztutako prozedurari jarraiki gauzatzeko dira:

13. artikulua

Komitea

- 1. Batzordeak komite baten laguntza izango du.
- 2. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 4. eta 7. artikuluko 3. paragrafoan jasotako epea bi hilabetekoa izango da.
- 3. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 3. eta 7. artikuluko 3. paragrafoan jasotako epea bi hilabetekoa izango da.
- 4. Komiteak bere barne araudia onartuko du.

14. artikulua

Beste komite batzuekiko lankidetzak

1. Batzordeak ezarriko ditu behar diren loturak gizarte-babeserako komitearekin eta enplegurako komitearekin, horiek Erabaki honetan zehaztutako jardueri buruz behar bezala informatuta daudela eta informazio hori aldi-aldi jasotzen dutela bermatzeko.

2. Programako bost atalen eremuan hartutako neurriek dagokienez, Batzordeak emango die informazioa dagokien gainerako komiteei.

3. Dagokionean, Batzordeak lankidetzaren erregularra eta egituratua ezarriko du 13. artikuluan aipatutako komitearen eta beste politika, tresna eta ekintza batzuetarako sortuak izan diren jarraipen-komiteen artean.

15. artikulua

Koherentzia eta osagarritasuna

1. Batzordeak, estatu kideekin lankidetzan, Erkidegoko eta Batasuneko beste politikekiko, tresnekiko eta ekintzekiko koherentzia globala bermatuko du. Horretarako mekanismo egokiak sortuko ditu, programako jarduerak beste jarduerak batzuekin koordinatu ahal izateko ikerketaren, justiziaren eta barne-arazoan, kulturaren, hezkuntzaren eta prestakuntzaren eta gazte-politikaren alorretan, bai eta Erkidegoko hedapenaren eta kanpo-harremanen, eta eskualdeetako politikaren eta politika ekonomiko orokorraren alorretan ere. Programa honen eta hezkuntzaren eta prestakuntzaren alorreko programen artean egon daitezkeen sinergietan arreta berezia jarri behar da.

2. Batzordeak eta estatu kideek bermatuko dute programa honi jarraiki hasitako ekintzen eta Erkidegoko beste ekintza batzuen arteko koherentzia, osagarritasuna eta gainjartzerik eza, batez ere Egitura Funtsei dagozkienekin, eta bereziki Europako Gizarte Funtsei dagozkienekin.

3. Batzordeak bermatuko du programa honek estalitako eta berari egotzitako gastuak ez zaizkiola Erkidegoko beste finantza-tresna bati egotziko.

4. Batzordeak, aldizka, 13. artikuluan aipatutako komiteari informazioa emango dio Agenda Sozialaren alorrean Lisboako Estrategiaren helburuak lortzera bideratutako Erkidegoko beste ekintza batzuei buruz.

5. Programako jardueren eta nazioko, eskualdeko eta tokiko jardueren arteko koherentzia eta osagarritasuna bermatzeko ahal duten guztia egingo dute estatu kideek.

16. artikulua

Hirugarren herrialdeen parte-hartzea

Programan parte hartu ahal izango dute:

- AELC/EEeko herrialdeek, Europako Ekonomi Esparruko Akordioan xedatutako baldintzei jarraiki,
- atxikitzeko bidean dauden herrialdeak eta Europar Batasunarekin elkartutako hautagaiak eta egonkortze- eta elkartze-prozesuan dauden mendebaldeko Balkanetako herrialdeak.

17. artikulua

Finantziarioa

1. 2007ko urtarrilaren 1 eta 2013ko abenduaren 31 arteko aldirako, Erabaki honetan aurreikusitako Erkidegoko jarduerak gauzatzeko finantza-zuzkidura 657 590 000 eurokoa izango da (*).

2. Programak irauten duen bitartean, atal desberdinen arteko finantza-banakapenak honako minimo hauek errespetatu beharko ditu:

- | | |
|--|-----|
| 1. atala Enplegua | %23 |
| 2. atala Gizarte-babesa eta gizarteratzea | %30 |
| 3. atala Lan-baldintzak | %10 |
| 4. atala Diskriminaziorik eza eta aniztasuna | %23 |
| 5. atala Generoen arteko berdintasuna | %12 |

3. Finantza-zuzkiduraren %2 esleituko da, gehienez, programa gauzatzeko; adibidez, 13. artikuluan aipatutako komitearen funtzionamendu-gastuak estaltzeko, edo 19. artikuluari jarraiki, egin behar diren ebaluazioak estaltzeko.

4. Aurrekontu Agintaritzak baimenduko ditu urteroko kredituak finantza-esparruaren muga barnean.

5. Batzordeak laguntza teknikoa eta/edo administratiboa eskatu ahal izango du, Batzordearen eta onuradunen mesedetan, bai eta laguntza-gastuak ere.

18. artikulua

Erkidegoaren finantza-interesak babestea

1. Erabaki honek finantzatutako ekintzak gauzatzean, Batzordeak Erkidegoaren finantza-interesen babesa bermatuko du. Horretarako, iruzurraren, ustelkeriaren eta legez kanpoko jardueren aurkako prebentzio-neurriak hartuko ditu, kontrol eraginkorrak egingo ditu eta behar ez bezala ordaindutako zenbatekoak berreskuratuko ditu. Gainera, irregulartasun egonez gero, zehapen egokiak aplikatuko ditu, honako arau hauei jarraiki: 2988/95 Erregelamendua (EE, Euratom), Kontseiluarena, 1995eko abenduaren 18koa, Europako Erkidegoen finantza-interesak babesteari buruzkoa ⁽¹⁾, 2185/96 Erregelamendua (Euratom, EE), Kontseiluarena, 1996ko azaroaren 11koa, Europako Erkidegoetako finantza-interesak iruzurrengandik eta irregulartasunengandik babesteko Batzordeak *in situ* egiten dituen kontrolei eta ziurtatzei buruzkoa ⁽²⁾, eta 1073/1999 Erregelamendua (EE), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 1999ko maiatzaren 25ekoa,

* Zenbateko hau 2004ko zifretan oinarrituta dago, eta doikuntza teknikoa egingo zaio inflazioa kontuan hartzeko

¹ L 312 EO, 1995.12.23koa, 1. or.

² L 292 EO, 1996.11.15ekoa, 2. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoaren (OLAF) ikerketei buruzkoa ⁽¹⁾.

2. Erabaki honi jarraiki finantzatutako Erkidegoko ekintzei dagokienez, 2988/95 Erregelamenduko (EE, Euratom) 1. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen den irregulartasun-kontzeptua honela ulertuko da: Erkidegoko Zuzenbideko xedapen bat haustea, edo ekintza bati dagokion kontratu-bidezko betebeharrak ez betetzea, edo agente ekonomiko baten ez-egitea, ondorio gisa Europar Batasuneko aurrekontu orokorrari, edo horrek administratzen dituen aurrekontuei, gastu oker bat ekar dakiekeena.

3. Erabaki honen ondorioz egindako kontratuak, akordioak eta hirugarren herrialde partehartzaileekiko hitzarmenek honakoak aurreikusi beharko dituzte: Batzordeak egin beharreko ikuskapena eta finantza-kontrola (Batzordeak baimendutako ordezkari batek ere egin dezake), eta Kontuen Auzitegiak egin beharreko auditoriak, beharrezkoa bada, lekuan bertan.

19. artikulua

Jarraipena eta ebaluazioa

1. Programaren kontrol erregularra bermatzeko, eta bera behar den bezala birbideratu ahal izateko, Batzordeak jardueri buruzko urteroko txostenak egingo ditu programaren bitartez lortutako emaitzetan arreta jarritz, eta Europako Parlamentuari eta 13. artikuluan aipatutako komiteari igorriko dizkie.

2. Programako atal guztietan ere bitarteko ebaluazio bat egingo da; horri esker programaren ikuspegi globala eduki ahal izango da, horren helburuak lortzeko zer aurrerapauso egin diren, baliabideen erabilerearen eraginkortasuna zenbatekoa den, eta Europarentzat zenbateko balio erantsia duen ikusi ahal izateko. Ebaluazio hori osatzeko etengabe ebaluazioak egin ahal izango dira; horiek Batzordeak egin beharko ditu, kanpoko espezialisten laguntzaz. Ebaluazioak eginda daudenean, 1. paragrafoan aipatutako jarduera-txostenetan sartu beharko dira horien emaitzak.

3. Beranduenik ere 2015eko abenduaren 31n, Batzordeak, kanpoko espezialisten laguntzaz, programa osoaren ebaluazio bat egingo du *ex post*, programaren helburuen eragina eta Europarentzat duen balio erantsia neurtzeko. Batzordeak espezialisten ebaluazioa aurkeztuko die Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari.

4. Programako atal bakoitza gauzatzea, emaitzen aurkezpena eta etorkizuneko lehentasunei buruzko eztabaida barne, Agenda Sozialaren aplikazioari buruzko Foroaren eremuan ere eztabaidatuko da.

20. artikulua

Indarrean jartzea

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeita egunera jarriko da indarrean Erabaki hau.

Estrasburgon egina, 2006ko urriaren 24an.

<i>Europako Parlamentuaren izenean Presidentea</i>	<i>Kontseiluaren izenean Presidentea</i>
--	--

J. BORRELL FONTELLES P. LEHTOMÄKI L

¹ L 136 EO, 1999.5.31koa, 1. or.